

**Kriminologiako Gradua aztergai-2:**

**GAZTE DELIKUENTZIA**

**Irakasgaia: Komunikazioa Euskaraz Arlo Juridikoan**

*Sheila DLAZ*

**AURKIBIDEA: I. Sarrera.- II. Ikasgaiaren garrantzia.- III. Ikasgaiaren eduki teorikoak.- 1. Gazte delinkuentziari buruz dauden ikuspuntu ezberdinak. 2. Gazte delinkuentziarekin lotuta dauden legeak.- IV. Ikasgaiaren eredu praktikoak.- V. Ondorioak.- VI. Bibliografia.**

**I. Sarrera**

Gaur egun bizi garen gizartean, egoera eta arazo pertsonalak, ekonomikoak, afektiboak, etab direla eta, delinkuentziaren fenomenoak kontutan hartzekoa da. Kriminologiaren bidez, gizarte segurua bat lortzea espero da eta horretarako, delituei buruzko ikerketetan oinarrituz, egoera aldatzeko proposamenak eskaintzen ditu. Proposamen horiek egiteko, gehien burutzen diren delitu motak eta delitu horiek sortarazten dituzten faktoreak aztertzen dira gehien bat. Kanpotik ikusita, oso gauza erraza irudi daiteke baina benetan ez da horrela. Gure gizartean gertatzen dena oso ondo ikertuta izan eta gero, horretan eragiten dituzten arloen ezagutza izan behar da. Kriminologiak, jakintza askotatik ezagutzak hartzen dituen karrera dela argi dago eta zuzenbide, psikologia, soziologia, etab. ikasgaiekin zerikusia duenez, delituari aurre egiteko baliabide ona da.

Hala ere, nahiz eta prebentzio neurriak hartu, zenbait kasutan, delitua prebenitzea ezinezkoa da baina hala eta guztiz ere, delitua gertatu arren, kriminologiak ere parte hartuko du. Parte hartze hori, bai biktimarekin eta bai delitugilearen izan daiteke.

Kontutan hartu behar da, edozein adinarekin delituren bat burutu daitekeela baina gazteek, bereziki, delitu gehien burutzen dituzten pertsonak dira. Gazteen delinkuentzia mundu osoan gertatzen den gertaera bat da, hiri industrializatu eta toki urrunetatik hiri handietako auzo pobreetara hedatzen delako, familia dirudunetatik txiroenetaraino. Maila sozial guztietan eta gure zibilizazioaren edozein tokitan gertatzen den arazoa da.

Hori dela eta, 'gazte delinkuentzia' deituriko ikasgaia dago kriminologia karreraren barruan. Izenak berak esaten duen moduan, gazte delinkuentzia, gazteek burututako delituak definitzen duen kontzeptua da. Hori dela eta, alde batetik delinkuentzia zer den argi izan behar da, eta bestetik, gazte kontzeptua zer suposatzen duen ulertzea ezinbestekoa da.

Hortaz, delinkuentziaren kontzeptua ikuspuntu soziologiko batetik aztertu gero, delinkuentzia, bere gizartera egokitzera kapaza ez den pertsona batek burutzen dituen portaerak dira. Izan ere, zuzenbideak esaten duena kontutan hartzen badugu, delinkuentzia, legeak esaten duena ez errespetatzea izango litzateke.

Teknikoki, gazte delitugilea adingabea den delitugilea da. Hau da, adingabea den pertsona bat delitu bat burutu ostean, gazte delitugilean bihurtzen da. Hala ere, kriminologiaren ikuspuntutik, gazte kontzeptua, 14 eta 21 urte bitarteko pertsonak barneratzen ditu, zabalagoa den kontzeptu bat eratuz.

Adin horietan delitu bat burutzera eramaten dituzten faktoreak hainbat izan daitezke. Gehiegizko estutasuna, ingurune gatazkatsua eta hazkuntza garapenean izandako frustrazioen bat erabakigarriak izan daitezkeen faktore eragileak izan ahal dira. Gainera, gizarteak eragiten duen presioa ere kaltegarria bilakatu ahal den faktorea izaten da. Hau da, gure gizarteak arrakasta izatea exijitzen duen kulturapean jarduten du eta pertsona batek medio legalen bidez lortzeko aukerak ez baditu, modu ez legal batean lortzen saiatzea gerta daiteke.

Gainera, faktore edo kausa organikoak ere daude, hau da, jaiotzetik norberaren anatomian aurki daitezkeenak. Hauen barruan, esate baterako, gaixotasun mentalak aurki daitezke.

Era berean, familiek duten hezteko modua ere bere eragina izan dezake. Jaiotze-berriak ezer jakin gabe jaiotzen dira eta beraz, haien izaera ikusten eta bizitzen dutenaren arabera garatuko da. Hori dela eta, normalean, biolentzia erabiltzen duten familia batean edo delituak burutzen dituzte familia batean hazten badira, haien, gauza bera egongo dute. Eta beraz, honetan oinarrituz, lagunek bere biziko garrantzia ere dutela esatekoa da. Gazteek integratuta sentitzea bilatzen dute etengabe eta haien lagunek delituak burutuz gero, gauza bera egingo dute baztertuta ez sentitzeko.

## II. “Gazte delikuentzia” ikasgaiaren garrantzia

Ikasgaia gazteek burutzen dituzten delituetan zentratuta dagoenez eta oso gauza puntuala dela pentsa daitekeenez, ikasgai bakar batean lantzeko zerbait ez dela uste da. Hala ere, gazte delinkuentziak eragin handia du gure gizartean eta ondorio txar asko ekartzen ditu.

‘Primer Informe Sobre la Jurisdicción de Menores’- en arabera, Espainian, inkesta bete duten gazteen %98,8ak portaera antisozial edo delituen bat buru izan du bere bizitzan. Horietatik %72,4ak, azken urte honetan burutu dutela edo dituztela aitortu dute. Gainera, gehienek, ordenagailuaren bidez burutu dute delitua eta alkohola edatea, tabakoa erretzea eta legalak ez diren drogak kontsumitzea da gehien burutu dituzten delituak. Era berean, inkestatutako gazteen %22,1a borroka baten parte hartzaileak izan dira. Horretaz gain, lapurretak egin dituztela, droga trafikatzan dutela eta arma zuriekin norbait zauritu dutela ere aitortu dute inkestaren bidez.

Nahiz eta gehien burutu izan dituzten delituak oso larriak ez izan, deigarria da ia %99ak delituen bat edo portaera antisozialaren bat burutu duela azken urtean. Argi dago, gure gizartean duen garrantzia eman behar zaiola (Judicial, 2008) .

Euskal Herrian, delituak burutzen dituzten emakumeen kopurua gora egin du. Euskal Autonomia Erkidegoko 2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planean ondorioztatutakoaren arabera, Euskadin delituak egiten zituzten adingabeen %13,1 emakumezkoak ziren, eta 2012an %20,2ra igo zen kopuru hori. Halaber, gehienak, %83, Euskadin edo Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan jaiotakoak dira. Zehazki, 2008-2012 aldiran delituak egin dituzten adingabeen %56,3 Euskadin jaiotakoak dira, % 6,8 Estatuko beste autonomia erkidegoetan eta %36,9 atzerrian. Era horretan, delituak egin dituzten adingabeen %40 Estatutik kanpokoak ziren 2008an, eta, % 31,7, 2012an.

Delitu-motei dagokienez, Erkorekak azaldu du ohikoenak indarkeriaz edota larderiez egindako lapurretak (% 14,5) direla, eta indarrez egindako lapurretak (% 12,6), lesioak (% 11,5) eta ebasketak (% 10,1) dira zerrenda horretan hurrengoak .

Ikasgaiaren bidez, datu hauek era zehatzago batean aztertzen dira, zein legeak aplikatzen diren eta gazteak nola babes daitezkeen analizatzen da, gazteek burututako delituak nola prebenitu erakustearekin batera. Azken puntu hau, delitua eteteko ezinbestekoa den mekanismo bat da gazteen delinkuentzia prebenitzea alde garrantzitsua delako gizartean delitua prebenitzeko. Gazteak zilegi eta gizartearen arabera erabilgarriak diren jardueretan ari badira, gizarteari begira bideratzen badituzte euren buruak eta euren bizitza antolatzen badute irizpide humanisten arabera, orduan eskuratu ahal izango dituzte kriminalitatea baztertzen duten jarrerak. Hau da, heziketa txikitatik hasi behar da pentsamendu kognitibo konduktuala era egokian garatuz, heldua den norbaiti pentsamendua aldatzea oso zaila baita. Hortaz, pertsona batek betidanik ikusi badu delituak burutzarekin gauzak edo etekinak lortzen direla, delituak tzarrak direla ideia izatea oso zaila denez, bere helburuak lortzeko, delituak burutuko ditu. beraz, gazteetan neurriak hartzea da garrantzitsuona kriminologiak duen helburu nagusia lortzeko: delinkuentziarekin amaitzea.

## III. Ikasgaiaren eduki teorikoak

### 1. Gazte delinkuentziari buruz dauden ikuspuntu ezberdinak

Arlo guztietan gertatzen den moduan, ikuspuntu ezberdinak sortzen dira gazte delinkuentziari buruz hitz egiterako orduan. Alde batetik, gazteak babesten dituzten iritziak egongo lirateke, eta bestetik, gazteak babesten ez dituzten iritziak edo ikuspuntuak egongo lirateke. Hau da, pertsona batzuk gazteak babestu beharko liratekeela uste dute, baina beste batzuk, nahiz eta gutxiengo bat osatu, aldez, helduak balira bezala tratatu behar liratekeela uste dute.

Hortaz, alde batetik, Emilio Calatayud-en ikuspuntua kontutan hartzekoa da. Calatayud arlo honetan nahiko ezaguna den epaile bat da eta adingabeei gizarteratzeari begirako zigorrak ezartzeagatik egin da ezagun. Izan ere, gazteen hezkuntzarekin eta autoritatea berreskuratzearen eta mugak jartzearen alde mintzatu da. Honen aburuz, adingabeen %80a ez dira delitugileak eta hori dela eta, zigor arruntak ezarri beharrean, hau da, legeetan aurreikusten diren zigor arrunt horiek ezarri beharrean, urtero hogeai adingabe baino gehiago irakurtzen ikastera zigortzen ditu, eta 230etik gora, derrigorrezko ikasketak amaitzera.

Delituok ordainarazteko modu asko daudela adierazten du eta askatasuna kendu gabe haiekin lan egiten saiatu behar dela defendatzen du. Hau da, gizartearentzako lanak burutzen, heziketa jarduerak egiten, zaintzapeko askatasuna betetzen, etab. Modu horretan, adingabeak heldu bihurtuko da.

Hortaz, gazteekin, beste epai batzuekin alderatuta, nahiko malgua dela ikus daiteke. Hala ere, malgua izatea ez du esan nahi haren zigorrak eragin gutxiagokoak direla, hezitzeko beste modu bat bakarrik.

Ikusten denez, Emiliok, zigor gogorrik gabeko birgizarteratze batean sinesten du. Gazteak etengabe ikasten ari direla esaten du eta hori dela eta, akatsak burutzeko eskubidea dutela defendatzen du. Zigor gogor bat, erreflexionatzea sustatu arren, gizartearengan

gorroto bat sortuko die eta egoera konpontzeko aukerak murrizten direla uste du. Haren gomendio bat da delituak burutzen dituzten seme- alabak dituzten gurasoek, haien seme-alabak salatzea nahiz eta zaila izan. Bestela, gazteek behin 18 urte beteta, kasu gehienetan delituak burutzen jarraituko dute eta harrapatuak izanez gero, helduen justizia konplexuagoa denez, zigorrak gogorragoak izango dira.

Hala ere, argi utzi nahi du ez duela defendatzen gazteek delituak burutzea, baizik eta hezitzeko beste modu bat aldarrikatzen duela.

Era berean, Human Rights Watch-eko zuzendariak, Maria Laura Canineuk, egindako elkarrizketa batean esan zuen adingabe bat heldua izango balitz bezala epaitzeak, haren oinarrizko eskubideak urratuko lukeela eta beraz, gizartearen babesa lortu nahi arren, kontrako efektua lortuko litzatekeela (juvenil, 2015).

Beste alde batetik, Felipe Schipaniren aburuz, gizartearen segurtasuna handitzeko, beharrezkoa da 16 urte gorako gazteak helduak balira bezala epaitzea. Hau da, Maria Laurak esandakoaren kontrako iritzia du.

Felipek Brasilen egindako ikerketetan oinarritzen da era horien arabera 13 eta 27 urte bitarteko gazteek, poblazioaren %8a, herrialdean burutzen diren delitu arinen %50a osatzen dute, eta herrialdean burutzen diren erailketen %20a adingabeak burutzen dituzte. Haatik, 16 urte gorako gazteak helduak balira bezala epaitzean, zigorrak askoz luzeagoak eta gogorragoak direnez, horrek sortzen duen beldurra dela eta, delitu kopurua murriztuko litzateke.

Izan ere, anibalentzia batean dauden autoreak ere aurki daitezke, esate baterako, Fabiana Goyeneche eta Lawrence Sherman, Pensilvaniako Unibertsitateko Kriminologia Institutuaren zuzendaria. Hauen arabera, delitu batzuetan komenigarria izango litzateke 16 urteko gazteak helduak balira bezala epaitzea baina bestelako delituetan komenigarria ez dela uste dute. Esaten dute, mota guztietako erailketetan, lesio larrien delituetan, bortxaketetan, estortsioetan eta bahiketetan helduak balira bezala tratatzea guztiz lagungarria izango litzatekeela delitu larrien murrizketa emateko. Gainera, dolua kontutan izan beharko litzatekeela ere esaten dute eta beraz, orain aipatutako delitu mota horiek doluz egindako kasuetan, 16 urte gorako gaztea helduen zigorra merezi dutela adierazten dute baina berriz, doluz egin ez badu, adingabe baten zigorra merezi dutela esaten dute (Espectador.com, 2014).

## 2. Gazte delinkuentziarekin lotuta dauden legeak

Alde batetik, 5/2000 Lege organikoa dugu, urtarrilaren 12koa. Hau 2001eko urtarrilaren 13an sartu zen indarrean eta adingabeen erantzukizun penala arautzen du. Oinarrizko izaera izateaz gain, adingabe delitugileen esku-hartzea arautzen du. Bertan, neurriak eta prozesuak aurkitzeaz gain, erabiltzen dituen printzipioak, erantzukizun zibila eta neurrien betearazpena topa daitezke. Esan beharra dago legedi berezia dela, izan ere, populazioaren zati jakin bati soilik zaio aplikagarri, eta kode penaletik eta prozedura legetik kanpo geratuko da; hau da, adingabeei lege hau aplikatuko zaie eta ez kode penala.

Honen arabera, pertsona bat heldua bilakatzeko, bi fase igaro behar ditu: haurtzarora eta nerabezarora.

1-13 urte bitarteko pertsona, haurra izango da. Hauek burutzen dituzten arau-haustek garrantzi gutxikoak direla dio 5/2000 Lege Organikoko zioen adierazpenak eta erantzun egokia jasoko dute familiarrean edo zuzenbide zibilean. Hamahiru urtetik beherakoen ulermen gaitasuna eta honen arabera jarduteko gaitasuna ez daude guztiz garatuta, eta beraz, arau-hausteren bat burutuz gero zuzenbide zibilera jo eta adingabeen babesari buruzko arauak ezarriko dira, bereziki kode zibilaren 1/1996 Legea.

Lege honen eskuduntza Autonomia Erkidego askok jaso dute, eta gure kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoak, eskumen eksklusiboa du; hau da, adingabeen babes eta tutoretza zentroak eta erakundeak antolatzeke eta funtzionamendua zehazteke ahalmena du. Dena den, nahiz eta Autonomia Erkidegoak arautzeko eskumena izan, betearazpena lurralde historikoen esku dago, hau da, Aldundien esku. Hala ere, adierazi behar da, udalek ere euren zeregina betetzen dutela babes eremuan.

14-18 urte bitarteko pertsona, nerabea izango da. Izan ere, adin-tarte honen baitan beste sailkapen bat daukagu:

- 14-16: hauei ezin ezarriko zaizkie hiru urte baino gehiagoko zigorrak (10.1a art).
- 16-17: hauen kasuan zigorraren muga sei urtekoa da (10.1b).

Bestetik, 4/1992 Legea ere dugu, adingabeen jurisdikzioaren eskumenei eta prozedurari buruzko lege arautzailea dena.

Gainera, Kode Zibila ere kontutan hartu behar da. Kode Zibilaren 315.artikuluaren arabera, jaiotegun osoa hartuko da kontuan; hau da, gaueko 23:00tan jaiotako pertsona batek ezingo du 18 urte betetzen dituen egunean (goizez) delitu bat burutu eta gaueko 23:00ak arte adingabea dela esanez justifikatu. Hala ere, Auzitegi Gorenaren arabera, ordea, interpretazio hori adingabearen aurkakoa da eta adingabea jaiotako ordua hartu behar da kontuan.

## IV. Ikasgairaren eredu praktikoak

Ikasgai ia guztietan bezala, alde teorikoaz aparte, gazte delinkuentziako ikasgaia, bere alde praktikoa ere badu. Honetan, bideoak ikusten dira eta artikuluak irakurtzen dira ondoren guztien artean komentatzeko.

Bideo edo artikulu hauek ez dira oso teknikoak izaten eta beraz, hauekin bilatu nahi dena da sentiberatasuna piztu. Hau da, auto- gogoetarako ariketak izatea espero da.

Honen helburua, prebentziorako teknikak lantzea da. Hori dela eta, gazteen delinkuentzia prebenitzeko, Nazio Batuen jarraibideak kontutan izatea lagungarria izan daiteke. Hauek, Biltzar Orokorrak 1990eko abenduaren 14ko 45/112 ebazpenean aldarrikatutako neurriak dira.

Honen aburuz, gazteen delinkuentzia modu eraginkorrean prebenitzeko, behar-beharrezkoa da gizarte osoak lortzea nerabeen garapen orekatsua. Hortaz, jarraibide hauek interpretatzeko, haurraren jarri behar da arreta guztia. Gazteen eginkizunak gizartearen eraginkorra eta parte hartzailea izan behar du, eta horiek ezin dira bakar-bakarrik gizarteratze- edo kontrol-objektutzat hartu.

Era berean, aintzat hartu beharko dira delinkuentzia prebenitzeko politika aurrerakoia aplikatzearen beharra eta garrantzia, bai eta modu sistematikoan neurri egokiak aztertu eta lantzea ere. Horretarako, aukerak sortu beharko dira, batik bat, hezkuntza-arloan, gazteen beharrezko desberdinei erantzuteko eta babeserako esparrua izateko. Gainera, doktrina eta irizpide espezializatuak azaltzea baliagarria izan daiteke, batez ere, lege, prozesu, erakunde, instalazio eta zerbitzu-sarean oinarritzen direnak. Hori dela eta, justiziak eta ekitatearen arabera gidatua dagoen esku hartze ofiziala guztiz lagungarria dela esan daiteke.

Izan ere, gazte guztien ongizatea, garapena, eskubideak eta interesak babestu behar direla argi izan behar da eta aitortu behar da gazteen portaera edo jokabidea, bat ez datozenean gizartearen balore eta arauekin, sarritan heldutasun eta hazkuntza prozesuan kokatu behar direla.

Era berean, alderdi soziologikoa aztertuz gero, adituen artean nagusi den iritziaren arabera, gazte bat “bazeratu”, “delitugile” edo “delitugile izateko zorian dagoela” esamoldeek sarritan lagundu egiten diete gazteei portaera desegokietarako norabide iraunkor eta zitalak garatzera. Haatik, etiketatze prozesu hori saihesten saiatu behar da (Botella, 1998).

Laburbilduz, gazteen delinkuentzia prebenitzeko, erkidegoa oinarri duten zerbitzuak eta programak sortu behar dira, dagoeneko horretarako erakunde ofizial aproposa eratu ez bada.

## V. Ondorioak

Ikusten denez, ikasgai gai guztiz proposa da kriminologian interesatuta dagoen pertsona batentzako. Gai konkretu batean zentratzen da baina hala eta guztiz ere, kriminologiako karreraren ekarpen handi bat suposatzen du.

Delituak ez burutzeko, hezkuntza on bat ezinbestekoa da. Hezkuntza egoki hori, txikitatik jaso behar da frogatuta dagoelako, delituak aurrera eramatearen oinarria, pentsamendu kognitibo konduktualetan aurkitzen dela. Hau da, pertsona batek duen pentsamenduaren arabera, delitu gehiago edo gutxiago egiteko aukerak izango ditu.

Gazteek haien izaera garatzen ari diren pertsonak dira eta hori dela eta, akatsak izatea onartu behar da. Izan ere, berriz ez burutzeko neurriak hartu behar dira haien gorrotoa piztu barik. Haatik, neurri hezitzaileak aplikatzea izango litzateke egokiena.

Hala eta guztiz ere, adigabeetan arreta jartzen duten legeak indarrean daude eta horietan, adinbageak babesteko baliabideak eskaintzen dira.

Hortaz, gazteek delitu ugarien autoreak direnez, indarrean dauden legeen, prebalentziaren eta prebentzio neurriei buruz informazioa eta ikasketak izatea komenigarria da kriminologo on bat izateko. Azken finean, kriminologiak, delituekin amaitzea du helburu, oinarritzeko eskubideak urratu gabe, noski, eta adingabeak direnez delituak burutzen dituzten lehengoak, arlo horretan lan egiten hastea lagungarria izan daiteke kriminologiak duen helburua lortzeko edo gutxienez, helburura hurbiltzeko.

## VI. Bibliografia

- Espectador.com.* (22 de septiembre de 2014). Recuperado el 12 de Mayo de 2016, de Espectador.com: <http://www.espectador.com/politica/300419/debate-en-perspectiva-los-argumentos-a-favor-y-en-contra-de-la-baja-de-la-edad-de-imputabilidad-penal-a-los-16-anos#1>
- Botella, J. N. (1998). Sociedad y marginación. *Revista de estudios sociales y sociología aplicada*, 5-11.
- Judicial, C. G. (2008). *Primer Informe sobre la Jurisdicción de Menores: análisis de las conductas antisociales y delictivas de los jóvenes en España*. Universidad de Castilla-La Mancha. Centro de Investigación en Criminología.
- juvenil, O. i. (29 de Junio de 2015). *Observatorio internacional de justicia juvenil*. Recuperado el 12 de Mayo de 2016, de Observatorio internacional de justicia juvenil: <http://www.oijj.org/es/news/justicia-juvenil-en-el-mundo/contra-la-propuesta-de-tratar-a-los-adolescentes-de-16-y-17-anos-c>
- Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena
- 4/1992 Legea, adingabeen jurisdikzioaren eskumenei eta prozedurari buruzko lege arautzailea
- Kode Zibila